



Proposamena

UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluan antzeman dugu unibertsitateko campusetan arazo larri bat dagoela ikasturtea hasi zenetik, unibertsitateko garraioari eta aparkaleku-kopuruari dagokienez.

Garraio publikoaren kasuan, Bizkaiko Campusean antzeman ditugu arazo larrienak; izan ere, Irakasleen Eskola Leioara lekualdatu da, eta orain 2500 pertsona inguru gehiago daude han. Egoera horren ondorioz, kasu batzuetan autobusak berandu iritsi dira, edo unibertsitate-komunitateko kideak ezin izan dute autobusera sartu; horregatik, harremanetan jarri gara Errektoreordetzarekin eta Foru Aldundiarekin berarekin ere. Oso modu positiboan balioesten ditugu Foru Aldundiaren kudeaketa, planteatu genituen proposamenetako batzuk onartu zituelako, eta Errektoreordetzarena ere, sortutako arazoan gainean ohartarazi baitu Foru Aldundia behin eta berriz.

Bidenabar, aintzat hartu behar da UPV/EHUK aparkaleku-plaza propioak dituela ikastegi batzuetan eta Campuseko Errektoreordetzan. Hala ere, campus honetako aparkalekuko alde batera sartzeko baldintzak nabarmen aldatu dira; eskusiboki UPV/EHUko langileentzat 600 plazako kopurua finkatu dute, eta hala, ikasleentzako plazen kopuruak behera egin du, nahiz eta Irakasle Eskola Leioara lekualdatu duten. Bi egoerek arazo larriak eragin dizkiote unibertsitate-komunitateari, bereziki ikasleei, eta horren zergatiak argi daude.

Bestalde, Gipuzkoako Campusean egoera bestelakoa da: UPV/EHUK aparkaleku propioak dituen arren, horiek kudeatzea Donostiako Udalaren mende dago neurri handi batean. Duela hilabete batzuetara arte udalaren mendeko aparkalekuak doakoak ziren; duela gutxitik, aldiz, aparkaleku horiek TAO dute, eta unibertsitate-komunitatearentzat zenbait murrizpen eta abantaila finkatu dituzten arren, Ikasleen Kontseiluaren ustetan egoerak nabarmen egin du okerrera.

Azkenik, aipatu nahi dugu probintzia arteko garraioari buruzko zenbait kexa iritsi zaizkigula, garraioaren ordutegiari, geldialdiei eta kostuari dagozkienak.

Horregatik guztiagatik, azaroko Gobernu Kontseiluari eskatu nahi diogu txosten bat aurkez dezan, unibertsitate-garraioari buruzkoa eta garraio publikoa hobetzeko eta garraio iraunkorra bultzatzeko Errektoretza Taldeak proposatuko dituen neurrien gainekoa.